# ERAKUSLEIHOA

GAZTE LITERATURA

**'Etxegabetuak'**

Nerea Arrien. Erein.
88 orr. 10 euro




## Pandemian etxegabetuak protagonista

"Etxea" bueltatzeko leku bat izan da gizakiontzat gizaldiz gizaldi. Pandemiak, ordea, bestelako adierak eman dizkio hitz horri. 'Etxegabetuak' liburuan, honi buruzko gogoeta bat bultzatzen da, kontraesan baten bidez: jende asko etxerarazi zuten; baina beste batzuk, ordea, etxegabetu. Etxegabetu horietako bat dugu Libe, eta berak kontatuko digu, lehen pertsonan, bizi izandakoa. Nerea Arrien idazlearen laugarren liburua da honakoa, haur, gazte zein heldu liluratzeko modukoa. Marrazkiak Diego Besnerenak dira.

KOMIKIA

**'Sugarren mende'**

Asisko Urmeneta. Erroa.
100 orr. 25 euro.




## Sorgin ehizari buruzko ikerketa, komikian

Duela 410 urte burutu zen Logroñoko autodafea, zeinean erre egin baitzuten hainbat euskaldun, sorgintzat akusaturik. Hura ez zen, ordea, bakarra izan: mende batean barrena Inkisizioak segada ikaragarriak egin baitzituen Nafarroan, Erronkaribarretik Amezkoaraino, milaka herritar ehizatuz. Bordeleko Tribunalak, aldi berean, sutan ezarri zuen Lapurdi guztia, sekta satanikoaren aitzakian. 'Sugarren mende' liburuan mendetako isiltasuna urratu dute, mitologia zahar eta berria baztertu, ikerketa historikoaren bidez.

# ZALDI EROA

